

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 26.eko erkidegoari onartutako laguntzen ehuneko 45 ordaintzea, eta ehuneko 50 erkidego horretan zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonai, Vitoria-Gasteizko Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-deialdiaren barruan

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Lehena. 237.136,88 euro ordaintzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko otsailaren 5eko eta 16ko erabakien bidez Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 26.eko jabe-erkidegoari emandako laguntzen ehuneko 45i dagozkionak, lanak egiteko proiektuen ordainsariak ordaintzeko zenbatekoak kendu ondoren, honen arabera:

ERKIDEGOA	EMANDAKO LAGUNTZA	ORDAINDUTAKO PROIEKTUA	LEHEN ORDAINKETA, % 45
Biasteriko taldearen kalea 26	564.064,04 €	16.691,94 €	237.136,88 €
GUZTIRA			237.136,88 €

Bigarrena. 18.561,06 euro ordaintzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 24ko erabakiaren bidez Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 26.ean zaurgarritasun-egoeran dauden jabeei emandako laguntza gehigarrien zenbatekoaren ehuneko 50i dagozkionak, honen arabera:

ESKATZAILEA	ZENBATEKO GUZTIRA	LEHEN ORDAINKETA, % 50
Y0259894P	6.085,03 €	3.042,52 €
16217080X	4.451,08 €	2.225,54 €
16298281K	8.861,99 €	4.431,00 €
12118986X	8.861,99 €	4.431,00 €
12066142C-12157804G	8.861,99 €	4.431,00 €
GUZTIRA		18.561,06 €

Hirugarrena. 21 Zabalgunea SAri baimena ematea aipatutako zenbatekoak ordaintzeko, deialdiaren oinarrien 36. artikuluan xedatutakoa betez.

Laugarrena. Hiri Ereduen, Hirigintzen, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotziari eskuordetzea egin beharreko gainerako ordainketak baimentzea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko otsailaren 5eko eta 16ko eta maiatzaren 24ko erabakien bidez emandako laguntzen deialdiaren oinarrien 37. artikuluan jasotako ordainketa-sekuentziaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 28an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA